



Financiado por la Unión Europea - [NextGenerationUE](#)

MOVES III LAGUNTZA-PROGRAMARI BURUZKO OHIKO GALDERAK

2022ko urriaren 13ko bertsioa

1. Sustapen-programa – IBILGAILUAK EROSTEKO

1- Jakin al dezakegu zein ibilgailu aukera daitekeen?

Bai, IDAE institutuaren webgunean, MOVES III Programaren eskakizunak betetzen dituzten ibilgailuak iragazi dira (<http://coches.idae.es/base-datos/vehiculos-elegibles-programa-MOVES-III>); hainbat formatutan eskura daiteke (csv, hml, xls), eta denbora errealean ematen du informazioa, **fabrikatzaileek eta ibilgailuen inportatzaileek** emandakoa.

2- Noiz eman dakioke baja ibilgailuari?

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaren arabera, laguntzaren hartzaileak izan beharko du txatarerako ibilgailuaren titulartasuna ondorengo data hauetako lehenengoaren aurreko hamabi hilabeteetan gutxienez: salerosketako fakturaren data, edo eskabidea erregistratu den data. **Beraz, ibilgailuari ezingo zaio behin betiko baja eman ondorio horretarako erreferentziatzen hartzen den data baino lehen (fakturaren data edo laguntzarako eskabidea erregistratu den data).**

3- Deialdiak argitaratu baino lehen erosi diren ibilgailuetarako, nola kalkulatu da “demo” ibilgailuaren antzintasuna?

Antzintasuna bederatzi hilabetera artekoa izango da, lehenengoz matrikulatu zenetik ondorengo data hauetako lehenengora arte: salerosketa-fakturaren data, edo eskabidea erregistratu den data; eta ibilgailua laguntzaren azken hartzaileari saltzen dion kontzesionarioak edo fabrikatzailearen/inportatzailearen saltokiak izan beharko du titulartasuna.

4- Kontzesionario batek, gehienez zenbat “demo” ibilgailu sal dezake laguntzarekin?

Deialdi bakoitzean, titulartasun bereko **hogeita hamar demostrazio-ibilgailuko** gehienezko kopurua ezartzen da.

5- Aukera al daitezke lehendabizi fabrikatzaileak eta ondoren kontzesionarioak matrikulatu dituzten “demo” ibilgailuak?

EZ. Oinarri arautzaileetan ezartzen da ibilgailua ibilgailu berri gisa erosi beharko duela saltokiak. Beraz, ezin dute izan bi erosketa izan dituzten ibilgailuak.

Beste kontu bat da fabrikatzaileak/inportatzaileak zuzenean azken hartzaileari saltzea, “demo” ibilgailu gisa. Kasu batzuetan, fabrikatzaileek zuzenean saltzen dituzte ibilgailuak, tartean bitartekari lanak egiten dituen saltokirik izan gabe. Kasu horretan bai, aukeragarria izango litzateke ibilgailua.

Oharra: Horrela jardutea ohikoa den arren, kasu horiek Oinarri arautzaileetatik kanpo geratzen dira. Muga 30 ibilgailukoa denez, oinarri arautzaileek ezartzen dituzten baldintzak betetzen dituztenak saldu beharko dira “demo” gisa, hau da, ez daudenak lehenik fabrikatzaileak eta ondoren saltokiak matrikulatuta.

6- Rentingaren kasuan, derrigorrezkoa al da fabrikatzaileak 1.000 €-ko deskontua egitea?

Bai. Oinarri arautzaileei jarraikiz, sustapen-programan sartzen diren M1 eta N1 ibilgailuei gutxienez 1.000 euroko deskontua egin beharko die fabrikatzaileak/inportatzaileak edo saltokiak, laguntzaren azken hartzaileari aplikatuko zaiona.

7- Zer baldintza bete behar dira mugikortasun urria izateagatik desgaitasunagatik laguntza handiagoa izateko? Nahikoa al da hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea?

M1 kategoriako ibilgailuen azken hartzaileak mugikortasun urria izateagatik desgaitasuna duten pertsonak direnean, eta horiek **ibilgailu egokituak edo gidatzeko egokitutakoak** direnean, eta **egokitzapen hori erositako ibilgailuaren fitxa teknikoan** jasota dagoenean, laguntzaren zenbatekoa % 10 handiagoa izango da.

Portzentaje bera aplikatuko zaie mugikortasun urriagatik desgaitasuna duten profesional autonomoek erosten dituzten eta gidatzeko **egokituta** dauden N1 kategoriako ibilgailuak erosteko laguntzei ere.

Hau da, mugikortasun urria izateagatik desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu, baina ibilgailua egokitzen ez bada (fitxa teknikoan ibilgailua egokituta dagoela jasotzen ez bada), ez da egongo laguntzari % 10eko igoera aplikatzeko aukerarik, eta oinarrizko laguntza jasoko da.

2. Sustapen-programa – IBILGAILUAK KARGATZEKO AZPIEGITURA

8- Zer laguntza dagokio udal bati, ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune publiko bat jartzeagatik?

Udalak merkatuan ondasun edo zerbitzurik eskaintzen ez duten toki-administrazioak dira, beraz, ez dute lehiari sartzen den jarduera ekonomikorik egiten.

Horregatik, MOVES III laguntza-programaren Oinarri arautzaileetan, ibilgailuak kargatzeko guneak erosteko laguntzetarako muga bat ezarri zen era horretako azken hartzaileentzako; kasu horietan, ez da aplikatzen lehiako merkatu batean zerbitzuak edo ondasunak eskaintzen dituzten enpresentzako 651/2014 Erregelamenduan ezartzen diren mugak. Testuinguru horretan, III. Eranskinean agertzen den laguntza, kostu aukeragarriaren % 70ekoa (% 80koa, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien kasuan), bere flotak bakarrik erabiliko dituen guneak erosten edo jartzen dituzten udalen kasuetarako bakarrik izango da, hau da, lehiako merkatu batean zerbitzurik eskainiko ez duten kasuetarako.

Oro har, ibilgailuak kargatzeko zerbitzuak ez dira sartzen Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legearen arabera udal batek eskaini behar dituen zerbitzuen artean. Hala ere, udal batek, dituen eskumenetakoren batean oinarrituta, zerbitzuok eskaintzea nahi badu, litekeena da tokiko enpresa publikoen bitartez eskaintzea; enpresa horiei 651/2014 Erregelamendua aplikatuko litzaieke eta, beraz, III. Eranskinean agertzen den laguntza emango litzaieke.

Financiado por la Unión Europea - [NextGenerationUE](#)

Laguntza hori zehazteko, kontuan hartuko da Enpresa Txiki eta Ertainak edo Enpresa Handiak diren, bai eta instalazioaren potentzia edo kokalekua ere.

Testuinguru horretan, eta udalek eurek ibilgailuak kargatzeko zerbitzu publikoak zuzenean eskaintzeko guneak erosten dituzten kasu berezietan, IDAEk uste du, laguntzen zenbatekoak zehazteko, enpresatzat jo behar direla, eskaintzen duten zerbitzua doanekoa den edo ez den kontuan izan gabe.

9- Laguntza-maila ibilgailuak kargatzeko azpiegituraren potentziaren araberakoa den kasuetan, instalazioaren guztizko potentzia edo kargatzeko gunearena hartzen da kontuan?

MOVES III laguntza-programan, modulatu egin dira kargatzeko guneetarako laguntzak, kargatze azkarreko eta oso azkarreko guneak bultzatzeko helburuz, hau da, 50 kW-tik gorakoentzako. Beraz, ibilgailuak kargatzeko gunearen potentzia da, eta ez instalazio osoarena, laguntzaren zenbatekoa ezartzeko kontuan izan behar dena.

Oharra: Ibilgailuak kargatzeko hainbat gune dituzten azpiegiturarako eskabideak egiten diren kasuetan, laguntza handiagoa eskuratu ahal izateko, nahikoa izango da ≥ 50 kW-ko potentzian kargatzeko aukera ematen duen gune bat gutxienez izatearekin. Laguntzaren gehikuntza hori ibilgailuak kargatzeko instalatutako azpiegitura osoari dagokion kostu aukeragarriari aplikatuko litzaioke.